

En el 3ltimo art3culo parec3a poder quedarnos tranquilos, sobre la base de la distinc3n entre la revoluci3n burguesa y la revoluci3n moderna.

Pero h3e aqu3 que el editorialista de Deia viene a calificar la revoluci3n moderna se refiere, sin duda, a la que predic3 Marx como "irracionalidad revoluci3naria". "Deia" escribir3a esto el 24 de noviembre, al d3a siguiente de la huelga general convocada por los trabajadores de

Echevarria y apoyada por los sectores pol3ticos y sindicales rupturistas del Pa3 Vasco.

Pero es que KAS, para justificar la misma huelga hab3a recurrido, tres d3as antes, al mismo argumento de la racionalidad, pero al rev3s, cuando condenaba la "irracional reconversi3n industrial" del "enemigo irreconciliable de los trabajadores, la burgues3a".

Se trata de la oposici3n raz3n-antirraz3n? O m3s bien de la dial3ctica raz3n-contrarraz3n? El hecho es que las

fuerzas instaladas en las instituciones de la Reforma han secuestrado la raz3n; la oposici3n rupturista concretamente la izquierda abertzale rupturista se empeña en reivindicar su raz3n, mientras tanto.

Pero si nuestra liberaci3n nacional y social han de tener un contenido revolucionario, es necesario algo m3s que reivindicar la raz3n secuestrada: hay que recuperarla y liberarla. Es responsabilidad de la izquierda abertzale rupturista.

el t3pico de la racionalidad (VI)

ezker abertzalea: arrazoa askatu!

Arrazoiak egingo zaituzte libre! Hauxe da iraultza moderno guztiek sinetsi duten "tedeko artikulua". Ebanjelioak bestela zioen: "Egiak egingo zaituzte libre". Baina agian hura beste honen itzulpena besterik ez da. Arrazoa bihurtu da egia politiko, sozial eta ekonomikoaren argi.

Iraultza modu bakoitza arrazoikotasun berrien baten izenean eta horren bila abiatu da. Giza arrazoi unibertsala aurkitu zuen iraultza burgesak, eta horren bidez askatu uste zen gizakia, ideologiazko dogmakera eta erlijiozko sineskera guztiarik, izadiari buruzko beldur eta fetixismo lotsagarrietatik, gizartezko egitura feudal, estatiko eta teokratikoetatik.

Ekonomi legeen arrazoibide berria aurkitu uste zuen iraultza sozialistak, eta horren bidez gitatu nahi du klase proletarioaren askapena, beronen alienazioetatik eta ugazaben aldetikako xurgapenetatik atez-atez.

Azkenik, "Herrien iraultzaren" garaian omen gaude (Jak3n 1977, 2). Gizakiaren ingurune natural eta kulturearen arrazoibidearen argitan, masifikazioetik, kutsaduratik eta deskulturazio-desnazionalizati3n askatu nahi da herria eta giza elkartea jatorrizkoa.

Askatasunaren burrukak beti eraman du arrazoiaren errebindikazioa. Ezin daitezke bereiz arrazoa eta askatasuna: ideologikoa, kosmikoa soziala, politikoa, ekonomikoa nahiz nazionala izan.

Baina Arrazoiaren eta Askatasunaren arteko harreman historia aldrebesagoda.

Arrazoa bahitu

Espainiko eta Euskal Herriko azken arteotako gorabeherei begiratu badiegu, bahituta edo dago arrazoa, Erreforma politikoa hasi zenetik. Erreformistek berriak daukate bahiturik, demokrazia eta konstituzioaren, autonomia eta estatuaren izenean. Erreformaren instituzi3n "urrezko" gartzelan daukate bahituta arrazoa.

Berriak ezarriatiko instituzi3n bandera, eta etsai politikoen kontra jaurtitzeko arma bihurtu dute arrazoa. Bahiketa hutsa! Baina arrazoi bahitua, askatasunik gabeko arrazoa da. Ezin izan, beraz, askatasunaren oinarri, gidari eta zirikatzaille.

Demokraziaren eta askatasunaren izenean eraikitako instituzi3n mot3n bihurturik dago arrazoa. Eta horren bidez daukatelarik, txantxiabide g3smatu dute, beraien erreformak burrukatzen diren

guztien aurka. Eta bestalde, beren politika, beren demokrazia edertzeko bidetzat hartu dute. Honetarako etengabe ari dira arrazoi bahituaren mezuak kanpora, beren erreformatik kanpo daudensid baldintzen: Beren erreformaren arrazoikotasunaren mezuak dira denak.

Behinena hasieran bertan eman zuten, erreformaren oinarriko lehen hiru debekuen arrazoikotasuna erakutsi ziguneean: Monarkia, haramada eta Espainiaren batusuna ikurtzerik ez zegoen. Horixe zen arrazoizkoa: arrazoi behituaren lehen mezuak.

Horren ondoren etorri dira gero guztiak.

Politika erreformistaren arrazoikotasuna goi-mailako "kontsentsuetan", "Pactos de la Moncloa" zirelakoetan, Konstituzio espainolean, Gernikako Estatuaren, LOAPAN dago. Horiek dira benetan arrazoizko politikaren fruituak.

Ekonomi krisiaren aurrean, pakto sozialen eta industri birmoldaketaren arrazoikotasunaren mezuak bidali digu bahituriko arrazoizko Energia nucleara ere edertu digu Erreformaren arrazoizko; aurrerapenaren, garapen ekonomikoaren baldintza omen bait da energia nuklearra; eta horren kontra jotzekoa haitzuloetara itzuli nahi dutenen zorakeria.

Terrorismoaren kontrako legearen arrazoikotasuna ere agertua digu Erreformaren arrazoizko; horrela bakarrik omen bait dago "La violencia irracional de los terroristas" desegitzi; tortura ere arrazoizkoa, hortaz!

Azkenburuan, Erreformak bahituriko arrazoizko bere burua Estatu-arrazoiarekin berdindurik agertu digu.

Eta bere mezu guztiak honetara bildu ditu: La Raz3n al poder!

Arrazoa errebindikatu

Baina ba dago gure Herri honetan beste sektore handi bat —eta ez da Herri Batasuna bakarrik— arrazoi bahituaren mezu liluragarri horiek onartzen ez dituen, konstituzioari men egin ez diona, Estatuari ezezkoa eman diona, erreforma hori ukatu egiten duena. Eta bere arrazoa errebindikatu du.

Arrazoiarekin batera prentsaren askatasuna bahitu baldin badu

Erreformak, prest daude besteak, auzitan, tribunaletan, kondanatan eta gartzelatan sartzeko, herriaren eritzi —askatasuna eta informazio— eskubidea indartzeko eta finkatzeko.

Desmobilizazioaren mezuaren kontra, mobilizazio etengabearen arrazoa errebindikatu dute besteak goi-mailako kontsentsu-bidearen etengabe partaidetaren eta oinarriko batzarrearen arrazoi kontrajartzen dute.

Paktuen eta birmoldaketa ekonomikoaren mezuaren aurrean, langile partaidetaren arrazoi indartu, bultzatu eta finkatu nahi dute besteak.

Energia nuklearraren ederra predikatzen badu erreformistak arrazoi bahituak, besteak kontra-arrazoizko burruka ekologikoaren esperantza eta arrazoikotasuna defenditzen ditu.

Estatu autonomikoaren eta autonomi estatuaren arrazoi "ederrenak" agertzeko zenbat mezu! Hala ere, erreformaren kontrako hementengorrek autodeterminazioaren eta independentziaren eskubideen arrazoiaren alde burrukatu dira eten gabe; Estatu nazionala bakarrik dute arrazoizko-tzat jotzen.

Azkenik, bere mezuak entzuteko prest ez daudenei mehatxuka hasi zaie Erreformaren arrazoi bahitua: errepresioaren, lege antiterroisten, Estatu-kolpeen mehatxuak. Arrazoi

bahituaren azken mezuak dira horiek. Baina besteak errebindikatu arrazoa erakutsi behar dela, diote.

Arrazoi erreformistaren aurrean etenaren arrazoa errebindikatu ari da gure Herriko sektore handi bat. Eta ez dago hementengatik ukatu beren arrazoa errebindikatzeko duten eskubidea. Alderantziz, erreformak arrazoi bahitu baldin badu, besteak ez daukate arrazoi errebindikatu besterik.

Arrazoa berreskuratu

Baina berehala esan beharra dago sektore honi, ez dela aski arrazoi errebindikatzeko. Berreskuratu, bereganatu egin behar du arrazoa. Ez da aski esate eta oihukatzea: "Guz arrazoa genuan"; "Gure arrazoizko ez dituzte entzuten!"

Eguneroko lanean eta burrukan egin beharrekoa da arrazoa, etengabe lantzekoa. Arrazoi bahitua askatu eta liberatu beharra dago, benetan ezker abertzaleak bere arrazoa erakutsiko baldin badu.

Orain ez da aski erreforma demokratikoari etendura demokratikoa kontrajartzea; etendura erreboluzionarioaren arrazoi erakutsi beharra dauka ezker abertzaleak. Baina horretarako arrazoi mamitu egin behar da.

Begien aurrean daukat El Pa3eko editorial bat (1979ko martxoaren 17koa). Titulua: "Algunas interrogantes sobre el Pa3 Vasco". Herri Batasunaz luze hitzigiten du. Honelako esaldiak jasoko ditut: Herri Batasuna "en la que los parti-

dos son bastante menos importantes que los l3deres y las emociones prevalecen sobre los programas y argumentos" (...) "Esas emociones ciegas para el an3lisis" (...) "Pero indican la irracionalidad y el emocionalismo del mensaje que transmite a sus lectores Herri Batasuna..."

Horrelako beste mila aurki daitezke azken urteotako egunkarietan, etsaiari jaurtitzeko arma bihurtu bait dute berriak bahituriko arrazoa.

Baina erreforma onartu ez dutenek ez daukate etengabe erreformak bahituriko arrazoiaren mezuak eta geziei erantzuten ibiltzerik. Hobe esan, etengabe erantzun behar dute, baina beren arrazionaltasun berria, iraultzailea landuz eta erakutsiz.

Errebindikazio eta burruka ekologikoa... Erresistentzia... Herriaren etengabe partaidetza politikoa... Herriaren batzare demokrazia... Langileriaren zuzeneko partaidetza... Autodeterminazioa eta independentzia... Aministia... Guzti hauek eta beste asko ez dira arrazoi erreformistaren mezu erantzuteko esloganak, mezu hain parkeo eta hitzeko erantzunak. Arrazionaltasun berri bat, logika original bat eskatzen dute.

Herri Batasunak —eta erreformaren aurkako beste indar guztiak— beharrezko du bere arrazoibidei forma ematea, gogarte sakon eta originalize. Beharrezkoa du nora, noraino eta nola iritsi behar dute erakustea. Horrela bakarrik aurkituko dute bere ekintza eta burruka guztiak arrazionaltasun berria.

Baina ez da hori bakarrik. Forma arrazionalarekin batera, taxu ofganikoa eskatzen du Herri Batasunaren politikak. Organizazioaren arrazoi erakutsi beharra dauka, benetan iraunkor eta eragile izango, badiitu bere politika, bere burruka eta bere iraultza nazionala eta soziala.

Euskal Herriaren iraultzaren etendura globala —politikoa, ekologikoa, soziala, ekonomikoa, kulturazkoa, nazionala— egiteko irudimen handia behar da —eta neurri batez erakutsia du hori Herri Batasunak—, baina ez da aski "Imaginaci3n al poder" eslogana: "la raz3n al poder" esan dutenei, arrazionaltasun berria erakutsi beharra dago, haiek bahitu duten arrazoiaren benetan askatu eta liberatuko bada.

Arrazoizko askatuko bagaitu, arrazoi bahitua askatu beharra daukagu.

JAUSORO



colaboraci3n